

Angel Larreagaz ibilbidea Zeanuritik bertako ondarea ezagutzeko

12. orrialdea

Astondoa munduko sega txapeldun

Pabi Astondoa, eta bere hiru taldekideak, txapeldun geratu ziran munduko sega txapelketan. Sega txikiagaz 60 urtetik gorako taldekakoan lortu eben garaipena. Txapelketea Salbitzen (Alemania) izan zan. Andrazkoetan be egon zan Arratiako ordezkariak: txapeldunaren alaba Irati Astondoa, hain zuzen be. 11. orrialdea



Arratiako gizonezkoen futbol taldea txapeldun izan da

10. orrialdea

begitu ^{TOKIKOM} 10 urte

arratia ubide zeberio

166

2012ko bagilaren 14a
hamabostekaria
www.begitu.org

Sanjuanak hasierea emongo deutsee udagiarioari eta jaiari

Gaua gozatzeko eta jaiak ospatzeko sasoiari hasierea emoten deusie sanjuanak.

U da osoan, gau epelak etxetik kanpo pasetako aukerea emongo dabe herri eta auzuneetan egongo diran erromeria eta kontzertuak. Eta egunez be, jai giroa egongo da gure eremu osoan. Jana eta apostua ez dira faltauko.

Sanjuanak dira udako lehenengo jaiak, solstizioagaz batera ospatuten dira eta. Bedia eta Ubideko jaiak dira eta herri honeetako egitarauetan, ez dira faltauko suak San Juan bezperako gau magikoan, txar guztia erretzeko. Beste leku askotan be piztuko dira

suak, Areatzako Zubizarran, berbarako.

Gainera, Dimako Oban, Igorreko San Juan auzunean eta Zeanuriko Altzuagan ospatuten ditue sanjuanak, besteak beste.

Sanjuanai sanpedroak hartzean deutsee erreleboa. Arantzazu eta Dima herrietako jaiak dira sanpedroak. Auzuneai jagokienean, barriz, Zeanuriko Undurragan eta Lemoako Elorriagan ospatuten dira.

Dimako jaietako kartel lehiaketean Iñigo Iruarizaga BEGITUKO kudeatzaileak irabazi dau 5. eta 7. orrialdeak



Sanpedroetako kartela.

ARRATIA

BEGITU 10 urte kantea sarean eta irratietan da




Bidean Galduta taldeak sortu eta Mungiako Magic Box Music estudioetan maiatza eta bagilan zehar Arratiako zazpi taldek grabatuko kantea irratian eta sarean da daborduko. Bidean Galduta, MG, Eskean, Jaik, Nik Chaos, Esti eta Olatz eta Tapakubosek kantetan dabe BEGITUREN 10 urteurrena ospatuten dauan kanta hau. 12. orrialdea

ARRATIA

Lemoatxa jausi zaneko 75. urteurrena

1936ko gerrea, Arratian 1937ko bagilan amaitu zan, Lemoatxako bataila gogorraren ostean. Lemoatx galdu eta barriro hartu egin eban Errepublikar-gudarien armadak. Dana dala, nazionalak artilleria, tankeak eta hegazkinak zituen eta euren banderea Lemoatxan ipinitea lortu eben bagilaren 5ean. 8. eta 9. orrialdeak



ARRATIA AUTOESKOLA
karneta euskeraz zein erderaz
Agire Lehendakaria 11 48140 Igorre (Bizkaia)
Telefonoa 94 631 56 31 Faxa 94 673 70 83
E-posta: unaizulu@euskalnet.net

LEMOA

ONCEk 100 behargin izango dauan garbitegi industrialia zabaldu dau

ONCE Fundazioak Flisa Euskalduna izeneko garbitegi industrialia zabaldu eban maiatzaren 30ean Lemoan. 101 beharginek egingo dabe behar, horreetatik 86 ezinduek, hotel eta ospitaleetako erropak garbituten. Horretarako 3,69 milioe euro inbertidu ditu fundazioak. 6. orrialdea

oarquitek@oarquitek.com www.oarquitek.com

o! Arquitek

Arkitektura eta Hirigintza estudioa

Errehabilitazioak
Erreformak
Hirigintza
Informea
Udal lizentziak
Peritu-azterketak
Zerbitzu integralak
Proiektuak eta obrak
Eraikinen Ikuskaritza Teknikoa (EIT-ITE)

Olaia Ziarrusta Atutxa
Arkitektoa
c/ Juan Bta Uriarte 50, 2 A
48960 Galdakao
652704936

KANTU HERRIKOIAK

SALTULARI KAMINO

Saltulari Kaminok
ez jaukek dirunik,
lau alaba jaukezak
lau alaba jaukezak
ezkondu bagarik.

Bostgarrena semea
kapote zaharragaz,
koneju bat dirudi
koneju bat dirudi
bere bizerragaz.

Dingilin dangoloa
ez nok ni zoroa,
santa Katalineko
santa Katalineko
dendari koxoa.

Zakuen sartu jaudek
zakuek zuloa,
handixik agiriok
handixik agiriok
kadera koxua.

Iturria: Simona Intxaurbe Gorostiza (Zeanuri 1916).

1988an, Zeanurin, Udako Euskal Unibertsitateko musika taldeak jasoa.

Saltulari Kamino

Sal - tu - la - ri Ka - mi - no ez jau - kek di - ru -
ri - - ik, lau a - la - ba jau - ke - zak, lau a - la - ba jau - ke - zak
ez - kon - du ba - ga - rik. Bost - ga - rre - na se - me - a
ka - po - te za - ha - rra - gaz, ko - ne - ju bat di - ru - di,
ko - ne - ju bat di - ru - di be - re bi - ze - rra - gaz.

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
S.O.S. DEIAK 112

Guardiako Farmaziak

09:00etatik 22:00etara
Bagilaren 11tik 17ra

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33
Tel.: 94 673 70 54

22:00etatik 09:00etara

Goiria. Amorebieta-Etxano

Bagilaren 18tik 24ra

N. Arrieta Bereciartua. Lemoa. Atutxa Sailburua 1
Tel.: 94 631 30 18

22:00etatik 09:00etara

Melero. Amorebieta-Etxano.

Bagilaren 25etik garagamilaren 1era

Badiola. Artea. Herriko Plaza 7
Tel.: 94 631 73 11

22:00etatik 09:00etara

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.
Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan

22:00etatik 09:00etara

Carazo. Karmelo Torre kalea 12. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea

94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Trenak

Euskotren 902 543 210

Bizkaibus* 902 222 265

Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduru: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua
22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduru: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era
orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara
30 minuturo, azkenengo 22:15ean
Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30
minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean
Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era
30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:
06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik
behin.

Otxandiotik urteerak:

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era
orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,
Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik
21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.
Zapatu eta jaiegunetan ez dago
zerbitzurik.

Artea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 15:30 eta
20:00.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Artea

Lanegunetan: 05:45, 14:15 eta 18:45.
Zapatuetan ez dago 05:45ekoa.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Zeberio-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 09:15, 11:15, 13:15
eta 17:45.

Jaiegunetan (Arrigorriagaraino): 08:15, 11:15,
14:15, 17:15 eta 20:15.

Bilbo-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan: 08:15, 10:15, 12:15
eta 16:45ean.

Jaiegunetan (Arrigorriatik): 10:40, 13:40,
16:40 eta 19:40ean.

La Union* 94 427 11 11**Bilbo-Gasteiz**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan
dau eta Otxandioakoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta
16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau
eta Otxandioakoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta
16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta
Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetan
dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan
dau Gasteizetik. Otxandioakorik ez dago.



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

www.begitu.org

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Kudeatzailea: Iñigo Iruarrizaga.

Erredakzino taldea: Urtzi Barrenetxea, Maialen Egileor, Iñaki Esparza, Irune

Garzia, Angel Larrea eta Irati Urien.

Maketazinoa: Iñigo Iruarrizaga.

Publizidatea: Iñigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: June Egileor, Maria Rodriguez eta Pablo Rodriguez (Lemoa eta Bedia), Julen Eskalante eta Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas eta Xabier Mendieta (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte eta Eneko Irujo (Dima), Alai Ozerinjauri eta Iraitz Sagarna (Igorre) eta Peio Murgoitio (Arantzazu, Artea eta Ubide).

Tiradea: 6.600 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

Ale kopurua 6.600 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

Babesleak:

Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura



bbk

ZEURE BERBEA

Agur Jokin

Gasite baten heriotzearen ostean hausnarketa egitea ondo jatorku batez be daukaguna baloretan ikasteko. Momentu honetan barrukoa askatuz lasaitasuna lortzean dozu.

Jokin txiki-txikitatik ezagutu izan dot, Mikelen laguna zan eta horregaitik nik euren jolasaldietako eta txokolatadetako momentuak beti gogoratuko dudaz. Momentu horreek benetan ahaztu ezinak izan dira eta.

Jokin Sestaora joan zan eta hainbat urtetan ikusi barik egon arren, Jokin Arteara itzuli bezain laster, txikitako lagun biak euren hartu-emona berreskuratu eta sendotu egin eben. Hasieran talde txikitxoan mobiduten ziran eta geroago "lokaleko" gazteakaz alkartuta talde handi bat osatu eben. Talde horretan adin desbardinatoko gazteak bat eginda eta gozatzen ikusten ziran maiatzaren 22an Jokinen heriotzea gertatu arte. Heriotza horrek Arteako herria eta "lokal" ingurua ilundu egin eban eta bertako gazteen tristezia hunkigarria izan zan.

Hurrengo egunean Jokinen etxeokoa agurtu nebazanean, han sentidu nebana barru-barruan daroat, horregaitik indar

berezia bialdu gura deutset bere gurasoai, Karmeleri eta Jesuse-ri euren zati bat joan jakie eta, animoa bere anaiari, Daneleri, besarkada bat amamari, Felisari, eta mosu bana izeko-osaba eta lehengusu-lehengusina: Sor-kunde, Zorione, Txomin, Franzisko, Markel, Mirari eta Aneri.

Badakit Jokin barik aurrera egitea gogorra izango dana, baina zuon arteko maitasunak indarra emongo deusue eta apurka-apurka sentitzen dozuen mina arintzea lortuko dozue.

Bene-benetan onena opa deusuet.

Maiatzaren 24an, goizean hamabiak aldera kanposantuan etxeokoa, familiakoak, lagunak eta bere ezagunak emozinoz berterik agurtu eben Jokin eta beste askok elizkizunean agurtu genduan. Elizan isiltasuna, tristezia eta negarra izan ziran nagusi.

Jokin joan jaku baina bere oroitzapenak betirako geldituko dira gure bihotzetan.

"Ederra izan da zu ezagutzea, erraza maitatzea, gogorra agurra emotea, baina ezinezkoa ahaztea".

Agur Jokin hor goian ikusi arte.

MERTXE EMALDI

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Iretargia



Iretargia gure planetaren satelitea da. Arratian hainbat eratarra esaten da: idargia, irargia, iretargia, itargia... Batuaz, ilargia da. Idargi/iretargi/itargi bari edo idargi/iretargi/itargi bete, kasurako, irargiaren aldiatiko bi dira: lehenengoan, ez jako ezer ikusten; bigarrenean, oso-osorik ikusten da zeruan. Batuaz, ilberri eta ilbete dira, hurrenez hurren. Eta "itargia laba ganean dago" esakerea giro zaratatsu eta bero-beroagaz lotzean da.

ERETXIA

Zergaitik ez gagoz danok barrikadetan?



ANA ETXARTE
Alternatiba

Sasoi latzak bizi doguz, zailantza eta ezegonkortasun sasoiak. Sistema honek modu globalean zaurgarritasuna eta desbardintasuna aspalditik sortu arren, Europa zaharrera heldu danean baino ez gara konturatu lurra mobiduten dala, aldaketak dagozala, aldaketak egon behar dirala.

Sasoi latzak bizi doguz, krisi sasoiak, eta zibilizazio krisi honen kolokan ipinten dau botereak segurutzat emoten eban. Holan, gero eta ageriago dagoz berez injustu eta indibidualista dan kapitalismoaren arrakalak; merkaduak eta transnazionalak bahitutako eta herritarrakandik gero eta urrunago dagoan demokrazia formalaren arrakalak; kolonialismoan, indarrean eta bazterketan oinarritutako nazioarteko harremanen arrakalak; eta kapitalismoaren aliadu estrategikoa dan patriarkaduaren arrakalak, gurpilak jirutzen segiduteko andren menpekotasun eta baztertzeko baldintzak sortzean dituana; hau da, porrot egin dauan proiektu baten arrakalak, aurrerapenaren, salgaien fetitxismoaren, indibidualismoaren eta dominazioaren proiektuaren pitzadurak.

Egoera honen aurrean, zer egin? Zergaitik ez gagoz danok barrikadetan? Erantzun gatxa dauka itaun kako honek. Egia da kontuan hartu beharreko azterketa puntuak ugariak eta desbardinak dirala, baina puntu bi aitatu gurako neukez. Lehenengo eta behin esango dot sistema honen garaipen handia, modernidade kapitalistaren proiektu honen garaipena, garaipen kulturala izan dala; hau da, sinistuarazotea herritarrok, andra-gizonok, ez garala burujabeak, ezin doguzala gauzak aldatu. Emoten dau gau-

zak eragina daukiela zuzenean ikutzen gaituenean bakarrik, eta ez taldeari eragiten deusienean. Horregaitik eta honen aurrean, geure bizitzen alde kolektiboa indartu egin behar dogu eta geure pentsamentu eta ekintzak barritzatu, subjektu moduan ko-

munidadea, lehenetasun moduan taldea, eta printzipio moduan alkartasuna berreskuratzeko.

Bigarrenik, barrikadetan jentea falta da, beti emon izan daualako lehenengo mailako, bigarren mailako eta hirugarren mailako barrikadak dagozala eta honek indarra alkarregaz eta batera egitea eragotzi daualako. Holan, ezagutu dogun ezker klasikoa espezialistea izan da burrukak bata bestearen menpe ipinten eta bere printzipioakaz koherentea ez izaten; hau da, burruka eta subjektu guztien burujabetzearen logikearen konplejutasuna eta bardintasunean benetako artikulazioaren premia ez ulertzen. Adibidez, feminismoa beti "andren kontua" izan da: bigarren mailako zerbaist nazioa edo klasearen aldean; eta ekologia be benetako burruken gehigarri moduan ulertu izan da, benetako subjektuen gehigarri moduan; eta logika internazionalistea, mundu global honetan hain garrantzi handikoa, esan beharreko baina funtsezkoa ez dan zerbaist moduan agertu da. Adibideak baino ez dira, baina honek dira barrikadetan hutsuneak egoteko arrazoiak. Alkarregaz eta batera, alkarrenganako errespetu eta bardintasunetik aurrera egiteko aukerea emoten daben erreferenteak, espazio eta logika komunak bilatzeari lehenetasuna emon behar deusagu. Horixe da eta, geure bizitzai eusteko modu bakarra, bizi gura doguzan bizitzak bizi ahal izateko, eta ez kapitalak, patriarkaduak eta menperatzeko sistemak gura dabezanak.

* Erredakzinoan itzulia

BATZ
BATZ, S. KOOP.
Torrea Iuzoa, 32
48140 IGORRE (BIZKAIA)

- Trokelgintza
- Automobiletarako Sistemak

Beharrez beharrez,
euskeraz eginez

Enbata Batz en gaitu

MONDRAKON

LUMATUTEN

BENJAMIN
AURREKOETXEA

Orduen

Etxeba handia, On Jose, Bibotes edo Jose mundiala, Artzubiganekoa, milaka historiaren jaube eta kontalari aparta dok/dona. Beti jeukak/jeukana zer edo zer esateko eta beragaz egotea aberasgarria eta entretenigarria izateaz gainera, gozarkun hutsa dok/dona. Lehengo egun baten handia bota jeuskuan/jeuskunan; itzela; honako hau dok/dona:

-Orduan, Mikel Laboa "Haga Biga Higa" kantea abestuten hasi zozan urtea izango zozan, Zorrontzatik Arratirako bidean, lehenengo kurben eskoiatara, taberna bat jegoan; Muñecas geituten zozan. Orduen ez gainoan bereizten tabernarik; zeozer edatera zabalik egoazan guztietara sartu behar zozan; derrigorrez. Automobila gelditu eta beste bategaz batera sartu nintzoan. Sartuaz batera, jente ezaguna; barran egoazanak danak Dimakoak; besteen artean, Artzubikoa, Indusikoa, Errotazarrekoa eta Teilerikoa be bai; danak aurrean basu zabalakaz. Barran

beste aldean egoan neskatxi polita hurreratu jakuan eta -¿Los Señores que van a tomar?- itandu jeuskuan; nik kuba-librea eta nigaz egoanak arda bat edo. Inondik inora isilik egon ezin eta, Artzubikoiari esan neuntsean: -¿Zer mutilak, ubelari baltza kendu deutzazue ala?-. Harek erantzundakoa be argia izan zozan. -Bai; hemen korta-beharrak danak inde jekidiezak; bea oin ostiek-. Errotazarrekoak argiago beba egin jeuskuan. -Etxeba, etxetik ekarritako diru guztiek, hona etorri orduko gastau joguzek; boltsan pezeta bat be ez jekoguk!-. Nik, egoerearen kargu hartuta, edan dozue? itandu neuntsian. Bai, bea oin etxekoguk zegaz pagau, Teilerikoak. la ba, edan badozue, segidu, aurrera, joan. -Hik pagaukok ala?-, Indusikoak. Bai, hau neure kargure; neu enkargauko nok honegaz. Harik joan eta apur batera, atzamar fintuenagaz nire kuba-librea eta nigaz egoanaren arda seinalauz, neskatxiari itandu neuntsean, -¿A ver cuanto es lo nuestro?-. Hori esanagaz batera, bazter batean julepera olgetan egoazanai begiratuta, -¿Ya me han liáu!- bota joan. Julepera olgetan tabemako arduraduna be baegoan eta, aurpegi garratza ipinita, barrara begiratu, eta oindino berba garratza-goagaz -¿queeee?- luzea bota joan. Barrako neskatxiak, -no, nada-. Guk geurea ordainduta Ama Lurrera edo egingo geinuan, beste kuba-libre bat edatera. Barriro Igorren topau gintzoazanean, Dimako lagunak itandu jeuskuan -¿zer in dozue ala?-. Nik be, argi eta garbi erantzun neuntsian: bai, ha ondo inde jak!

ZERTZEAN



ITSASO BENEDICTO



BEGI TXINDORRA

Euskaldunok alkartzen garanean derrigorrez mahai-inguruan izaten ei da, bazkaltzeko edo afaltzeko. Krisiak baina, ohitura osasungarri hau kolokan ipini ahal dau, ze gertatu daiteke mahai gainean jatekorik ez egotea. Baina Berbalagunak idea bat izan dabe: ogia egin, gero berau jan ahal izateko.

"Etxean ogiagaz olgau" ekintzan hamabost berbalagun batu ziran maiatzean ogia egiten ikasteko. Oinarrizko oreagaz ogiak egin zituen Berbalagunok, eta ostean kopautxoak egon zan ogia probetako. Helburua bete egin zan, eta betiko moduan, janak lagun du eban euskaldunon arteko harremanetan. Izan be, "helburua, ogiaren atxakiapean Berbalagunak alkartzeko gunea sortzea izan zan, harreman-sareak sendotu eta euskerea praktiketako" dinoe antolatzaileak.

Euskerea eta jana, geure identidadea.




Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
 Ureztaketa instalazioa
 Mantenua eta Inausketa
LORAZAINTZA
 Bildosola Industrialdea E2 Pab. 48.147 Artea
 Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
 gorosti@gorostisl.com


Ortodontzia
Inplanteak
Estetika
 Marina Urigoitia Aldekoa
 Odontologia
 Bidebarri 1, behea
 48140 Igone-Bizkaia
 T. 94 631 30 39
 Nafarroa Zerkano, 110
 R.P.S. 25/06


JANDONIZ
 nagusientzako etxea
 residencia para mayores
 Jandoniz, 2 - 48390 BEDIA Bizkaia - tel. 94 631 31 30 - www.jandoniz.com

UBIDE

Gau magikoa izango da San Juan bezperea

Magia eta sinbolismoz beteta dagoz Ubideko jaiak. Leku askotan sanjuan suak piztuten dira eta urak be protagonismoa hartzean dau udako solstizioan. Ez dira hainbeste, ostera, arbola erabilten dabenak. Urtero lez, ubidezarrak basora joan eta zugatz bat ekarriko dabe herri erdian altxatzeko. Eta zugatz hori altxatuz emongo jakie hasierea jaiak. Sua eta akelarreak magiaz beteko dabe giroa.



Ubide.

Erredakzinoa

Ubiden, eszenalekua eta txosnak herriko jentekak montetan dauz. Horretarako hilaren 15, 16 eta 17an batuko dira lan hau egiteko prest dagozanak eta garagarri-laren 1ean eta 2an desmontatu eta afaria izango dabe.

Bagilak 22, barikua

17:30ean, arbola bila joateko batu.
19:00etan, arbola altxatuz jaiak hasierea emon.
19:45ean, janari eta edari truke herrikoia.
22:30ean, Ustekabe fanfarrea.

23:00etan, kontzertuak.

Bagilak 23, zapatua

11:00etan, guraso eta umeak antolatutako jaiak.
17:30ean, futbol partidua.
19:00etan, magoa.
21:30ean, sua, akelarrea eta zanpantzarrak.
22:00etan, herri afaria.
23:30ean, Dantzadigaz jantzaldia.

Bagilak 24, domekea

11:00etan, puzgarri eta jolasak.
13:15ean, meza osteko barauskarria eta trikia.
17:30ean, pelota partiduak.
20:00etan, erromeria.

DIMA

Lau eguneko egitaraua prestatu dabe Diman San Pedro jaietarako. Zapatuan, hilak 30, Zea Mays taldeak eta eskolako umeak gormutuen zeinu hizkuntza erakutsiko dabe arrastian eta gauean kontzertua emongo dau Bilboko taldeak.

Zea Mays eskolako umeakaz egongo da jaietan

Erredakzinoa

Aitatzekoa be bada egun berean auzoen eta taldeen arteko txapelketaren lehenengo saioa izango dala eta jubiladuak bazkaria izango dabe San Pedro egunean.

Bagilak 28, eguena

18:00etan, txupina.
20:00etan, txapelketak: tortilla, makailau eta tostadak.
22:00etan, euskal kanten ekitaldia.
23:00etan, kontzertua Obaneuke taldeagaz.

Bagilak 29, barikua

11:00etatik **14:00**etara, umeen-

tzako jolasak.

12:30ean, mezea.

13:30ean, 85 urtetik gorakoai omenaldia.

14:15ean, jubiladuen bazkaria eta ostean trikitixea.

16:30ean, eskupelota jaialdia.

19:30etik **23:00**etara, kale animazioa eta pintxo-potea.

23:00etan, kontzertua Bide Batez taldeagaz.


00:30ean, Play backa.

Bagilak 30, zapatua

11:00etatik **14:00**etara, umeentzako jolasak.

14:00etan, herri bazkaria.

18:00etan, auzoen eta taldeen arteko txapelketea.



Dima.

20:30ean, eskolako umeak gormutuen hizkuntza Zea Mays-koakaz batera erakutsiko dabe.

23:00etan, kontzertuak: Split 77, Zea Mays, Bolbora.

00:30ean, euskal preso eta erre-presaliaduen aldeko ekitaldia.

Garagarriak 1, domekea

13:15ean, jantza saioa.

19:00etan, bertso saioa: Uxue Alberdi, Igor Elortza, Oihane Bartra eta Iker Zubeldiagaz herriko plazan.

21:00etan, antzerkia *Barre laborategia*.

ARANTZAZU

Pelota partiduak jaietan

Erredakzinoa

Hiru egunetako egitaraua prestatu dabe Arantzazun sanpedroak ospatuteko. Goizean goiz hasten dira ekitaldiak, eta txupina bera be goizeko 10:00etan botako dabe. Umeai hainbeste gustetan jakien bits jaiak zapatu goizean izango da eta zapatu arrastian pelota partidu interesgarriak egongo dira. Bertan Arratiar pelotariak eta Goñi izango doguz.

Bagilak 29, barikua

10:00etan, txupina eta umeentzako jolasak.

12:00etan, meza nagusia, 90 urtetik gorakoentzako omenaldia eta jubiladuen bazkaria.

16:30ean, karaokea, herriko jantza taldea, umeentzako jolasak, herri kirolak Urpegaz eta txololotea.

22:00etan kontzertuak.

Bagilak 30, zapatua

Liburutegian Arratia Palenque

erakusketea.

09:30ean, txirindulari lasterketea.

09:30ean, bits jaiak.

12:00etan, trikitixea Musika Eskolakoakaz.

16:30ean, frontenis finala.

17:30ean, eskupelota finala.

18:30ean, pelota partiduak, Imanol Agirre, Leiza, Galarza eta Goñi.

20:30ean, merinda-afaria: odolosteak, txorizoa, txistorra...

Kontzertuak.

Bagilak 31, domekea

10:00etan futbito partidua.

Okela paellea eta tortillea kipula barik.

17:00etan, Mus eta Briska txapelketak.

UBIDE

Jai batzordeak eta Ubideko Udalak

Gora Ubideko jaiak!

EUSKAL PRESO ETA IHESLARIAK

ETXERA

JAI ZORIONTSUAK OPA DEUTSUEZ

DIMA

Jai batzordeak eta Dimako Udalak

Gora San Pedroak!

JAI ZORIONTSUAK OPA DEUTSUEZ

expert ARRATIA

E posta: expertarratia@cordevi.com
Lehendakari Agirre, 15 Tel. 94 673 60 55
48140 IGORRE (BIZKAIA) Fax 94 631 52 89

BICIS

Arratiarren alanda

BICIS BIZI

Tel. 94 631 52 89
janzon@cordevi.com
Ongarri Meritxelu kalea, 12

IGORRE

Ikasleak bertoko baserriko produktuak bultzatzea eskatu dabe udaletxean**Erredakzinoa**

Eskolako Agenda21 programearen barruan, Dimako Ugarana Ikastetxe-ko ikasleak, Inazio Zubizarreta Ikastetxe-koak eta Arratia Institutukoak, bertako baserriko produktuak sustatzeko, hainbat proposamen egin ebezan bagilaren 4an udaletxera egindako bisitan. Proposamenok gauzatzeko udalaren laguntasuna behar da eta Igorreko alkateari eskakizuna zuzenean egiteko aukerea izan eben ikasleak.

Dimako ikasleak ortua eskolan, bertako produktuentzako azoka gehiago eta baserriarrai "errez-tasunak" emoteko eskatu eben. Igorreko eskolakoak be kezkatuta agertu ziran baserriko produktuen merkadura iristeko aukerakaz, eta dendetan bertoko produktuentzako leku bat egotea eta bertoko produktuen azoka gehiago eskatu zituen, beste gauza batzuen artean.

Institutukoak be, herriko dendetan bertoko produktuentzako leku bat eskatu eben, baita Institutuko jangelan egunero sortzean diran bazkari hondakinak modu egokian bideratzea be.

Eskolako agenda 21

Eskolako agenda 21 proiektua,

ikastetxean bertan eta inguruan iraunkortasunaren eta kalidadearen alde hezkuntza komunitateak, udalagaz batera aurrera errotan dauan konpromiso eta ekintza plan bat da. Proiektu honegaz, ikasleak, ingurumen-egoera ulertutea eta garapen jasangarriagaz bat datorren kudeaketea bultzatu gura da.



Ikasleak Igorreko udaletxeko pleno aretoan.

LEMOA

Ehun behargin izango dauan garbitegi industrial zabaldu dabe**Erredakzinoa**

ONCE Fundazioak Flisa Euskalduna izeneko garbitegi industrial bat zabaldu eban maiatzaren 30ean Lemoan. Bertan 101 beharginek egingo dabe behar,

horreetatik 86 ezinduak, hotel eta ospitaleetako erropak garbituten. Horretarako 3,69 milioe euro inbertitu ditu fundazioak. Inaugurazio ekitaldian Gemma Zabaleta Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Gizarte Politika sailburua, Aitor

Gonzalez Euskadiko ONCEn presidentea eta Aitor Erauzkin Lemoako alkateordea egon ziran.

Garbitegia Pozueta Industrialgunean dago, 16-F pabilioian, eta 4.000 metro koadro ditu. Eusko Jaurlaritzaren arabera, bertan 20.000 kilo erropa garbituko dira egunean, lan txanda bitan. Flisa 32 garbitegi dituan garbitegi sare bat da. Sare hau Fundosak (ONCE) sortu eban 1990ean eta guztira, 2.800 behargin ditu.

LEMOA

Zementu fabrikak "produktu toxikoak kontrol barik" zabaltzen dabe**Erredakzinoa**

Greenpeacek maiatzaren 29an Bartzelonan aurkeztutako *Hondakinak errausketaren atzeko atea* txostenaren arabera, porlan fabriketan zaborra erretzeak kaltea dakarke gizarteari eta ingurumenari. Porlan fabriketan uri hondakinak erretzearen jardunak aztertu ditu Greenpeacek eta "produktu toxikoak kontrol barik zabaltzen" dirala ondorioztatu dau.

Lemoan Jundizko (Araba) tratamentu plantak ontzi arinakaz egindako hondakinetatik eratorritako erregaiak erabilten ditue-

la dinoe, baita bestelako hondakinak be erretzen dituela: haragi



Zementu fabrika.

urinak, araztegiatiko lohiak eta autoen pneumatikoak, besteak beste.

Gainera, hondakinak erraus-tea baliabideak galtzea iruditzen jakie Greenpeacekoari eta hondakinak birziklatzea errentagarriagoa dala eta zaborrik ez sortzeako politikak indartzeko eskatu dabe.

IGORRE

Eskariari erantzun ahal deutso Haur Eskoleak**Erredakzinoa**

Igorreko Udalak jakinarazo ebanen arabera, momentuz dagoan eskariari erantzun ahal izango deutso Haur Eskolak 2012-2013 ikasturtean. Behin-behineko matrikulazio epea zarratu ostean

Haurreskolen Partzuergoak matrikulazio datuak helduarazo eutsazan udalari eta plaza kopurua azpitik dagoz. Datuon arabera, zero eta bat urte bitartekoan gelan zortzi eskaera jaso dira, eta urte bat eta bi urte bitartekoan gelan hogeitabi ume egongo dira.

ARRATIA

Errokatibea egingo dabe Urkiolan hilaren 16an**Erredakzinoa**

Tradizioari eutsiz, arratiar asko joango dira oinez euren herrietatik Urkiolara santuari bakea eskatzeko. Aurten "bakea eskatu, bakea zabaldu" lelopean, Dimatik goizeko 06:00etan eta Zeanuritik 08:00etan urtenda oinezko mar-txa bi egongo dira, baina autoz eta autobusez be joango da jentea Arratia osotik. Aurten, errokatibea Lemoako parrokiak antolatuko dau eta Lemoako parrokiko umeen

abesbatzak hartuko dau parte.

Igaz 400 persona inguru batu ziran eta aurten 500era heltzea aurreikusten dabe antolatzaileak. Arratiako herri guztietakoak dira partaideak "gero arratiar asko dator Arratiatik kanpo bizi dana: Galdako, Basauri, Bilbo, Zornotza... Adibidez kartelaren argazkiak Celine Gorostizagoizak atera zituan igaz, bera billaroztarra da baina Zarautzen bizi da eta handik etorri zan" azaldu deutso BEGITUARI Arratiako eleizak.

AREATZA/LEMOA

Ugerlekuak 16an zabalduko dira**Erredakzinoa**

Lemoa eta Areatzako aire zabaleko udal ugerlekuak hilaren 16an zabalduko ditue atek uda partean, urri lehenengoaren 16ra

arte, zerbitzua eskeintzeko. Goizeko 11:00etatik 20:00etara egongo dira zabalik Areatzakoak eta 11:30etik 20:00etara Lemoakoak. Prezioak ez dira igon ez Lemoan ez Areatzan, igazko bardinak dira.

ARRATIA

Irakurleak barriak komentau ahal dabez webgunean**Erredakzinoa**

BEGITUREN webgunean barriak komentetako modua erabilgarri dago. Albitarean ostean, "Idatzi zure komentarioa" agertzen dan lekuan, datuak emon eta komentarioa egin daiteke. Argitaratu baino lehen, BEGITUK "ez dagozala berba txarrak, debaldeko salaketak edota difamazioak" konprobauko dauz eta komentarioa webgunean, barriaren ostean publikauko da.

Inkesta barria

Ez da gaurretasuna daukien gaien

gainen irakurleen eretxia jasoteko modu bakarra. BEGITUREN webgunean inkesta bat dago. Lehenengo itauna izan zan zaborraren inguruko, "Arratiako Mankomunitateak etxerik etxeko zabor-bilketa sistema ezarri beharko leuke?" hain zuzen be. Berrogeta hamar erantzun egon dira eta baiezkoa nagusitu da. 33 lagunek esan dabe baietz (% 62,26) eta 17k ezetz (% 32,08).

Hurrengo itauna hauxe da: "Non egiten dozu astegoieneko gau-errondea?".

ARRATIA

Erromeriak, txapelketak, barauskarriak... eta gehiago

Erredakzioa

Udako solstizioa (sanjuanak) eta udako lehenengo jaiak (sanpedroak) ez bakarrik herrietan, auzune eta ermita inguru askotan ospatzen dira gurean. Izan be, San Juan jaiak Dimako Oban, Igorreko San Juan auzunean eta Zeanuriko Alzuagan ospatzen dira. Sanpedroak, barriz, Lemoako Elorriagan eta Zeanuriko Undurragan. Azkenengo honetan, Arratian lehenengo egiten dan ikuskizun bat egongo da: behi gobernua zaldiakaz.

Hona hemen jai egitarauak.

Obako (Dima) San Juan jaiak
Bagilak 24, domekea
Mezea eta barauskarria.

San Juan (Igorre) auzuneko jaiak
Bagilak 23, zapatua
21:00etan sardina jana eta trikitilariak.
22:30ean, San Juan sua eta su artifizialak.

Bagilak 24, domekea
13:00etan mezea, barauskarria eta trikitixea.
14:00etan ugel txapelketea.

Alzuagako (Zeanuri) San Juan jaiak
Bagilak 23, zapatua
15:00etan, txupina.

20:30ean, San Juan sua. Ondoren, sardinak, urdaia, txokolata eta abar gura daben guztientzat. Jarraian erromeria.

Bagilak 24, domekea
12:00etan meza nagusia eta ondoren errifearen zozketea, Zeanuriko jantzariak, txistulariak, aizkora txapelketea: Mendieta vs Txikon.
18:00etan, bola txapelketea eta umeentzako jolasak.
Jaiari amaiera emoteko erromeria.

Undurragan (Zeanuri) cow-boyak sanpedrotan

Sanpedroak ospatuko ditue Undurragan eta horretarako egitarau originala prestatu dabe. Izan be, ekitaldi izarra Arratian lehenengo egiten dan ikuskizun bat izango da, behi gobernua zaldiakaz, hain zuzen be. Erakustaldi hau Euskal Western Elkarteak antolatu dau eta zapatuan, hilak 30, izango da ikusgai. "Antza izan arren, ez da rodeo bat. Behi talde bat leku batera eroatea baino. Artzai txakurrak ardiakaz egiten dabena, baina zaldi eta behiakaz" azaldu deutso BEGITURI Txomin Goti antolatzaileak.

Egitaraua
Bagilak 29, barikua
12:00etan, meza nagusia.
21:30ean, auzo afaria.

Bagilak 30, zapatua
16:00etan, Mus txapelketako kanporaketak.
18:00etan, behi gobernua zaldiakaz eta ostean errifaren zozketea.
20:00etan, herri parrilladea.

Garagarrilak 1, domekea
12:00etan, meza nagusia.
17:00etan, Mus txapelketako finala.
19:00etan, txokolata eta jaien amaiera.

Elorriagako (Lemoa) San Pedro jaiak

BEGITUKO zerbaki hau zarratute-rakoan, Elorriagako jaietako egitaraua ez zan behin betikoa baina jakin badakigu 30ean ospatuko dabena San Pedro. Barauskarria, ugel txapelketea nagusientzat, dardo txapelketea umeentzat, paella lehiaketea, mus txapelketea, bola txapelketea, txitixibur-duntzia, umeentzako tailer eta jolasak... egongo dira beste gauza batzuen artean.



Behi gobernua zaldiakaz.

BEDIA

Bidean Galduta taldeak joko dau jaietako gaurik laburrenean

Barikuan zortziretan emongo jakie jaiak hasiera ofiziala txupina botaz eta hurrengo hiru egunetan Bedian sanjuanak edo udako solstizioa ospatuko dabe. San Juan bezperan, gaurik laburrenean, tradizioak agintzen dauan lez bediazarrak eta inguruetatik etorritakoak suaren inguruan batuko dira, txar guztia erre eta bizimoduari indarbarrituta ekiteko asmoz. Sua baino lehen Bidean Galduta Arratiako talde arrakastatsua jantzan ipiniko ditu hurreratzen diranak.



San Juan sua Bedian.

Erredakzioa

Aurtengo egitarauan, San Juan eguneko ekitaldi batek merezi dau aitamena. Arrastiko zarpiretan, Gurutze Gorrikoak erreskate erakustaldia egingo dabe. Didaktikoa izateaz gainera, ikusgarria be izango da, duda barik.

Bagilak 17, domekea
10:00etatik **14:30**era, XII. Esku-langintza eta elikagaien azokea.

Bagilak 22, barikua
18:00etatik **21:00**etara, Zuresku jolas tradizionalak.
20:00etan, jaien hasierako txupina trikitixea eta dultzaineagaz alaituta. Sardina jana.
21:30ean, erromeria Egan eta Kalte taldeakaz.
Mozorro gaua. Gaia: zirkua.

Bagilak 23, zapatua
12:00etan, V. Paella lehiaketarako izen emotea. Tirituk antolatuta.

14:30ean, paellak aurkeztu.
17:00etan, kuadrilen arteko IV. Olinpiadak Tirituk antolatuta.
22:30ean, kontzertua Bidean Galduta taldeagaz.
24:00etan, San Juan sua eta jarraian kontzertuak: Ze Esatek eta Trikitio.

Bagilak 24, domekea
11:00etan, meza nagusia eta ostean, kalejireta.
12:00etan, eskupelota partiduak. Umeak.
18:00etan, eskupelota partiduak. Kadeteak eta Gazteak.
19:00etan, Gurutze Gorrikoen erreskate erakustaldia.
20:30ean, Zeani Antzerki Taldearen *Gerbasio gaz ordubete* antzezlanak.
22:00etan, 12 km.
Jantzi tradizionalak jantzi.

Bagilak 25, astelehena
11:30etik **13:00**etara, puzgarriak.
17:00etatik **19:30**era, puzgarriak eta tailerrak.
17:00etan, XXVII. Briska txapelketea. (Bikotekide bat Bediakoa).
18:00etan, tortilla lehiaketarako izen emotea.
19:00etan, ugel txapelketea Laguntasuna tabernak antolatuta.
19:00etan, frontenis finala.
19:30ean, tortillen aurkezpena.
20:30ean, jaiak amaiera txokolatagaz.

ellaURI HOTELA
Landa Turismoa Enpresa Zerbitzua
Altuza 38, 48144 ZEANURI | +34 946 317 888 | ellauri.com

ARA OTZ
Landa Turismoa Enpresa Zerbitzua
Barru Ugarina 2. et. - 48144 Dima - Bilbo | www.aranotz.com

habia arkitektura monika agirre zamakona
Proiektuak - Obra zuzendaritza
Zaharberritzeak - Igogailuak
ITE - informeak
Aholkularitza teknikoa
Jarduera proiektuak
Administrazio tramiteak
Tif. 690 18 16 42
Zure neurria egindako proiektu eta aurrekontuak
www.habia-arkitektura.com

OPEL
Ibaigane, S. Coop. Ltda.
Etxepare, 15
48330 LEMOA (Bizkaia)
Telf. 631 33 30 - 631 31 31
Fax 631 36 15

1936KO GERREAREN 75. URTEURRENA (I)

Gerra Zibila Arratian

1937ko maiatzaren 18an Zornotza frankisten eskuetan jausi zanean, Aramotz mendikatea bihurtu zan gerratearen frontea. Aramotz mendikatea Urkiola inguruan (Saibe mendian) hasten da eta Lemoan amaitu, Mañariako Ezkuako hatxak, Mugarra, Leungane, Artaun, Urtemondo eta Belatxikieta ganeak zeharkatuz. Arerioen nagusitasuna gero eta nabariagoa zan, airetik eta itsasotik batez be.

Angel Larrea eta Iñaki Esparza

Aramotz mendikatearen Zornotza-Lemoa aldea Eusko Gudarostearen 2. Dibisioaren VI. Brigadearen kargu egoan, Vidal koronelaren agindupean. Mendikatearen erdialdea, Oba ingurua, 3. Dibisioaren X. Brigadearen esparrua zan, eta Ibarrola komandantea bere nagusia. Eta mendikatearen Mañaria Urkiolarainoko aldean VII. Brigada, Lino Lazkanoren kargupean.

Maiatzaren 22an hasi ziran frankisten erasoak. Sukarrieta Batailoiak 100 soldadu inguru galdu zituan, eta Igorre aldera erretiratu behar izan zan. Rebelión de la Sal Batailoiak be Lemoarantza jo egin behar izan eban. Eta hirugarren erasoketea, gogorrena, Brigada asturiar batek sufridu eban: nazionalak Otxandiotik urten, Zumeltzatik eta Altun menditik Bargondiaraino eta Zeanuriraino heldu ziran, eta 23an Dima jausi zanean, Ilunbe eta Urrekoatzako mendilerroa hartu eben. Egun berean, Agirre Lehendakariak Indalecio Prietori, Itsas eta Aireko Armadako Ministroari, telegrama bat bialdu eutsan, gerrearen azken barriak emonez: "Ayer arrojaron sobre Yurre más de 1.500 bombas aviación". Lau egun beranduago, beste telegrama baten Agirre Zeberio herriaren kontrako eraso komentauko dau.

Dana dala, Arratiako harana zeharkatzen eban errepidea (Lemoa eta Areatza bitartean) gudarien kontrolpean mantentzen zan bagilaren 14ra arte, hau da, hiru aste gehiago. Zeanuriko Plazea ez zan inorena; Andra Mari eleizearen aldea, barriz, frankistena. Ibarrola komandantearen Batailoiak izan ziran Arratiako bailara defendidu ebenak, Aramotz mendikatea abandonau ostein, honeexek:

-III. Brigada (Padura, Isaac Puente eta Gipuzkoa Batailoiak) Mendigana-Zanburu mendilerroan.

-VII. Brigada (Loyola, Itxardundia, Perezagua eta Torrijos Batailoiak) Igorre-Arantzazun.

-XI. Brigada (Arana Goiri, Dragones, Ibaizabal eta Larrañaga

Arratiako harana

zeharkatzen eban

errepidea gudarien

kontrolpean mantentzen

zan bagilaren 14ra arte



Lemoatx eta Lemoako eleizea gerra denporan.

Batailoiak) Areatza eta Artean. Arana Goiri Batailoiak Upo menditik babesten eban Areatza eta, gainera, metrailadore postu bat eukan eleizako kanpantorean. Ibaizabal Batailoiak -Arratia Konpainia barruko zalarik- erasotu eban Ilunbetik baina arrakasta barik. Antza, Diman (Ugaranan, Olazabalen, Lamindaon...) moroen infanteriako tropak, "regularrak" deituak, baserriarren aurkako sarraskiak egin ebezan. Tropa honeek Nafarroako 4. Brigadearen, Camilo Alonso koronelaren agindupean, egon ziran.

Ez zan izan baina sarraski bakarra, aurreko apirilaren 7an, Barazar eta Dimako portuak eta Altun mendia galdu ziran -ordurako Ubide herria be etsaien eskuetan egoan-, gudarien aldeko eta miliziano asturiar batzuek persona errubako batzuk hil ebezan Zeanurin. Somoza komandanteak, asturiar tropen nagusiak, arratien protestak entzun behar izan eban; ostein, Gorbeia mendiaren ingurura bialdu ziran asturiarrak, han baina, ez zan gerraren frontierik sortu: Gorbeialdeko parajeen unidate militar gitxi egon ziran, Zeanuriko baserrietatik gora pasautako boluntarioak, besteak beste, eta

honeetariko batzuek frankisten kontra egindako burrukan heriotzea aurkitu eben bertan.

-X. Brigada (Durruti, Muñatones eta Mexico Batailoiak) Ixedu edo Exidu mendian, Lemoa inguruan. Hemen sortu zan hurrengo egunetan Gerra Zibileko ekintzarik nabarmena Arratian: Lemoatxeko Batailea.

Lemoatx, galdu eta barri hartu

Maiatzaren 24an Aramotz mendikatea abandonau beharra egoanez, gudarien Vidal koronelak fronte barria ezarri eban Bizkargi menditik Arratiako haraneraino, bere 2. Dibisioaren hiru brigada honeekaz:

-XV. Brigada Bizkargitik Boroa auzoraino.

-IV. Brigada Lemoatxen, Zornotzara emoten dauan aldean: Malatesta, Batailo anarkista, Aspetetik; Martiartu, gudarien Batailoia, Ixerango muinotik; UHP Batailoia Zornotzako errepidetik sakabanatuta; eta frontearen bigarren lerroan, Lemoatx tontoretik hur, Simon Bolibar, gudarien Batailoia.

-Lemoa herrian bertan, eta Pagotxeta mendira arte, VI. Brigada.

-Erreserba moduan, Bedia inguruan, Brigada asturiarrak.

Lemoatxan tontorra ez da zorrotza, eta Ekialde-Mendebaldeko norabidera luzatuten da. Mendi hau errepide lau batek inguratzen dau: Hegoaldean, Zornotzatik datorren errepidea doa, Ibaizabal errekea eta Donostiako trenbidearen ondotik. Lemoatxan, tontor inguruan, gailur bi dagoz Ipar-Hegoaldera orientatuta, 300 m distantziagaz batetik bestera -orduko denporan pagoakaz landatuta-. Bata, Iparraldera begira dagoana, Ganzabal deitzean da (368 m altuerakoa). Bestea, Hegoaldera begira dagoana, harrizkoa eta zorrotza da -bere azpian harrobia zabaldu zan- eta Lemoatx izena hartzean dau (365 m altuerakoa).

Lemoatx ez egoan gerra baten defentsarako ondo prestatuta: ez zan gotorleku egokia lehergailuen eztanatik babesteko. Zapadoreak eginiko lubaganak eta ondoan jarritako zaku beteak ziran babes bakarrak. Errepublikar-gudarien armadak ez eukan injenieruen unidaderik, trintxera onak egiteko.

Maiatzaren 22an eta batez be, 23an, hegazkinen bonbardaketak hasi ziran Lemoatxan,



Gudariak trintxeretan burrukan.

arerioaren aldetik. Barrero erasoketak airetik 26an eta 28an. Azken egun honetan gudarien eta tropa errepublikarren hildako eta zaurituak hainbat izan ziran. Ahulduta ikusirik, hurrengo egunean, erasoketa masiboa egin zan, eta frankisten artilleria astuna eta hegazkinak protagonistak: Lemoatx, nazionalena. Martiartu Batailoiak 100 soldadu inguru galdu ebazan, metraileari bota eutsien errua; Malatesta Batailoi anarkistak are baja gehiago, UHP Batailoiak ez hainbeste; eta Simon Bolibar Batailoiak, tontor inguruan egoanak, oso kastigautako egoan, ze egun osoan sufridu ebazan arerioen erasoak.

Egoera kritikoa zan. 30eko gauean, Agirre Lehendakaria Galdakaora joan zan, han egoan 2. Dibisinoaren egoitza eta hara bertaratu zan baita, Lemoatik, Gorritxo komandantea, IV. Brigadearen nagusia. Agirreraren agintea hauxe izan zan: Lemoatx barrero hartu behar da. Gorritxo komandanteak, Lemoatx errekueretako, ez eukan kanpoko errefortzurik. Bizirik gelditu ziran tropakaz aurre egin behar izan eutsan erasoketeari. Terrenoa be ez zan bat be eroso: behetik gora eta aldatsa malkartsua, gainera. Horretarako, hiru Batailoi honeekaz kontau eban:

-Simon Bolibar, Batailoi aber-tzalea, Hegoaldean kokatuta.

-225 eta 230 zenbakidun Batailoi asturiarrak. Eurentzako agindua: tontorra lortzea.

Bagilaren 5ean
nazionalak artilleria,
103 hegazkin eta 15
tanke erabili zituen
Lemoatxan

Gorritxok, asturiarren komandanteakaz batzartu ostean, erasoaren ordua emon eutsen: "31ko goizaldeko lau terdietan izango da". Ilunpean eta laino artean, Simon Bolibar Batailoiak urten eban bakarrik, eta aldats-gora egin eban. Arerioaren trintxeretara ailegau, eta barrero sartu egin ziran. Ordu bateko eskuko granaden borroka egin ostean, handik botako dabez Etxegoien komandante "reketea"ren tropak.

Gorritxok pentsau eban erasoketea gauez egitea, arerioak hegazkinen laguntza barik egozanean. Baina gudarien artilleriari laguntzea ez eskatzea izan zan egin eban akatsa: infanteriagaz bakarrik egitea eraso. Jakina zan asturiarrak ez zirala inplikauko behar zan beste burrukan. Arrazoiak: motibazino faltea edo, Bizkaian gerra egitea...

Bagilaren batean, beste ahale-

gin bat egin zan: XV. Brigadearen Sukarrieta Batailoiak 32 gizon galdu ebazan. Eta atzera egin behar izan eban: beste huts bat. Hurrengo eguneko erasoketan beste hainbeste gertatu zan.

Azken ahalegina bagilaren 3an izan zan: Rosa Luxemburgo Batailoiaren komandantea, Cristobal abizenekoak, Gernikaldean kanpaina arrakastatsua egin ondoren, VI. Brigadearen nagusi kargua hartu eban, eta berari emon eutsien Lemoatx konkistetako agintea. Hori egin eban hiru batailoi euskaldun honeekaz: 4., 22. eta 35. agaz. 81 mmko morteroakaz, artilleriako piezakaz, eta tanke ertain biren laguntzeagaz Lemoatxeko tontorra bereganatu eban, "reketen" artean 70 hildako inguru egin ostean. Momentuko poza izan zan, ze egun bereko arrastian VI. Brigadeak 300 soldadu inguru galdu ebazan konkistaturiko po-

sizinoa defendiduten. Horrexe-gaitik, gauean VI. Brigadearen lekua Gorritxoren IV. Brigadeak okupau eban eta honeri tokau jakon barrero be Lemoatxako azken defensora.

Egun bi beranduago, bagilaren 5ean, heldu zan etsaiaren kontraeraso nagusia. Oraingo honetan, arerioak artilleria, 103 hegazkin -euren artean alemaniarrek eta italiarrak- eta 15 tanke erabili ebazan erasoketa bortitz eta errukibakoan. Gudarien tropak haustuta amaitu eben. Eta nazionalak euren banderea ipini eben Lemoatxako puntan: Gerra Zibila-ren amaiera izan zan Arratian.

* **Iturria:** Pablo Beldarrain Olalde (Pablo Beldarrain, Comandante de Gudaris, Jefe de la 5ª División Vasca). *Historia crítica de la guerra en Euskadi* (1936-37). Intxorta 1937 Kultur Elkarte. Oñati: 2012. 277.-282. or. eta 295.-307. or.

Arbaso artetik ZEANURIko baztarrak ezetu

historia, mitologia, natura...



- **Gidaria: Angel Larrea**
- **Eguna: Bagilaren 23an, zapatua**
- **09:00etan Zeanuriko plazan**
- **15:00etan bazkaria egongo da**
- **ibilaldira datozenantzat**



IBILALDIA

ARTEAKO 
XVI. AUZORIK-AUZO



26

EKAINAK 24, DOMEKA **3EURO** bazkideak 5 besteak
8-etan plazan LUZEA : 33KM, 1400m DESNIBELA
8terdietan plazan LABURRA : 18KM, 800m DESNIBELA

Kartela.

Arteako XVI. Auzorik Auzo ibilaldia 24an

Erredakzioa

San Juan egunerako antolatu dau AKKT taldeak Auzorik Auzo ibilaldia- ren hamaseigarren edizioa. Parte hartzaileak 08:00etan batuko dira plazan eta ibilbide bi ditue aukeran. Luzeak 33 km ditu eta 1.400 m.ko desnibela; laburrak 18 Km. eta 800 m.ko desnibela. Igaz 130 lagunek hartu eben parte eta aurten be horrenbeste espero dabez antolaz- tzaileak.

Zikloturista martxea 17an

Hilaren 17ko II. Zikloturista martxa- ren urteera goizeko 09:00etan izango da eta 105 km egingo da- bez. Igaz 130 txirindularik hartu eben parte "kopuru hori gainditzea espero dogu. Izan be, jentea sano pozik geratu zan" azaldu deuto BEGURI Victor Martinez AKKTkoak. Hau antolatuten Arteako Udalak, Gari Bikesez, Gurutze Gorriak, Iza- rrek, La Caixak, Coca Colak eta Arra- tia Ziklista Elkarteak lagundu dabe.

AIZKOREA

Aitzol Atutxa azpitxapeldun Eusko Label Banakakoan



Aitzol Atutxa.

Erredakzioa

Bagilaren 10ean jokatu zan Az- peitiako Izarraitz pelotalekuan 2012 Eusko Label Banakako Aizkora Txapelketaren Urrezko Mailako finala. Bertan, Floren Nazabal, Unai Otaño eta Atutxa II.a neurtu ziran. Txapela Naza-

balentzat izan zan eta Dimakoak bigarren egin eban. Txapeldunak 23 minutu eta 45 segundo behar izan zituan lana amaituteko (12 enbor). Atutxak, barriz, 24 minutu eta 43 segundutan gel- ditu eban erlojua.

Atutxa II.a Bizkaiko txapelduna da eta igaz be azpitxapeldun geratu zan txapelketa honetan.

FUTBOLA

Arratia gora

Maialen Egileor

Arratiako gizonetzkoak ligako txapeldun izan dira eta Lehenta- sunezko Mailara bueltauko dira hurrengo denporaldian. Gainera, euren mailako beste txapeldu- nen kontra jokatu dabe eta par- tidu hori be irabazi egin dabe: Arratia 1 Union Sport San Vicen- te 0. Beraz, Lehen Mailako bi multzoetako txapeldun moduan amaitu dau Arratiak denporaldi oso on hau.

Arratiako andrazkoak osteria li- gea irabazi eta gero, Liga Vasca- ra igon dira. Baina lehenengo gel- ditudeagaitik, aukerea euki dabe goragoko maila batera igoteko, hau da Nazionalera, datorren denporaldian Bigarren Maila dei- tuko dana. Horretarako, Arabako eta Gipuzkoako txapeldunen kontra jokatu behar izan dabe. Alaves San Ignacio, Zarautz eta Arratia egon dira lehia horretan. Lehenengo partiduan Zarautzek irabazi egin eutsan Alaves San Ignaciori eta bigarrenan Arra- tiari. Holan ba talde gipuzkoarra izan da Bigarren Mailara igon dana.

begitu **10** urte
arratia ubide zeberio

Umeen moda 0-20 urte
• Botoli • Ray • Aranda
• Akur • Guisaber • Aranzaga
• Gantelak • Iñe • Hassan
sein
LEHENDAKARI AGURE, 27 • 946 319 296
seinmoda@hotmail.com

GARANTXE Autoeskola
TEORIA EUSKARAZ ZEIN ERDARAZ
Balentziak: A1, A, B75 &
Lehendakari Agure 31
Telefono: 94 673 71 32
48140 IGORRE (Bizkaia)
garantxe@euskaltel.net

AKESOLO, S.A.
GARRAIOAK, NEUMATIKOAK ETA ZERRITZUAK
Garbe, 29 Telefono: 94 673 60 14 IGORRE-BIZKAIA

ELEKTROARGI ELEKTRIZITATERA
Instalazio elektrikoak • Aberiak
Telekomunikazioak
Material elektrikoak
Juan de Ajuriagerra 1 Behea 48330 Lemoa
Tlhoa-Faxa 94 6312576 Mug. 647405115

BIXER TABERNA
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARDO

axular kultur elkarte
Agirre Lehendakaria 4 - 94 673 70 92
axularke@gmail.com

indar
instalazio elektrikoak
Bildosola Industrialdea, pab. E 3-4
48142 ARTEA - BIZKAIA
T. 94 655 47 19
indars@indars.es • www.indars.es

AKEITEGIA
GAY & LORA
IGORRE

Emilio Goitia banatzaile ofiziala
SanMiguel
Ardoak Edariak
94 673 64 02 Industrialdea E-3 Pabeloia (Igorre)

AHOLKULARITZA:
LEGI-LAN ARLOAN
ZUZENBIDE
ZERGA ETA DOKU KONTSULTAN
ONDARUN HIRUGIZINEN
ASIGURATZAN
Sabino Arana, 3 Tlhoa 94 673 71 41 - Fax: 94 673 64 01 - 48140 IGORRE

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3, 3a T: 94-673-70-87
Igorre 48140 Bizkaia T: 609-79-40-54

ekin s.a.
LAN PUBLIKOAK
INDUSKETAK
GARRAIOAK
UR SAREAK
SANEAMENTSU SAREAK
BASERRI ETA BASORRI BIDEAK
PABELLOAK
URBANIZAZIOAK
Iturritz barrera 8 - 48141 Dima (Bizkaia)
Tel.: 94 631 72 57 Faxa: 94 673 95 25
e-posta: c.ekin@telefonica.net

Pinturas Aratia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

LEHIAKETE

Jaietarako auzo eta taldeen arteko norgehiagokearen araudia atera dau Dimako Udalak



Bagilaren 2an Diman herritarrak egindako desafioa.

Erredakzioa

Jaietako txapelketan parte hartzeako araudia atera dau Dimako Udalak. Jai gehienetan antolatutena dira kuadrilen arteko joko eta lehiaketak, eta parte hartzeari eragingarri bat emoteko joko honeek txapelketa baten batuko dira. "Txapelketak bost jardunaldi eta finalak izango ditu. Lehenengo jardunaldia sanpedroetan izango da, bigarrena Artaungo jaietan, hirugarrena Olazabalgo jaietan, laugarrena Obako jaietan eta bosgarrena Indusiko jaietan. Finalak ostean egingo dan jai baten egingo dira" azaldu deusie begituri Dimako udaletik.

Talde bakotzak sei partaide izango ditu eta ordezkokak be egongo dira, beste sei gehienez. Taldeak, hiru andrazkok eta hiru

gizonezko osotu behar dabez. Eta identifiketako izena eta jantzi kolore bat izango dau talde bakotzak. Bakarkako, binakako zein talde osoko jokoetan parte hartu beharko dabe taldeak eta taldekide bakotzak bakarkako eta binakako proba baten bakarrik jokatu ahal izango dau.

Hiru sari

Udaletik azaldu dabenaren arabera, joko eta proba bakotxean taldekide beste puntu bananduko ditu epaileak, lehenengoari puntu gehien emongo deusaz eta azkenari puntu bat. Txapelketan zehar puntu gehien lortzean dabezan taldeak finalera joango dira. Talde txapeldunak 400 euroko saria jasoko dau, bigarrenak 200 eurokoa eta hirugarrenak 100 euro izango ditu saritzat.

SEGA

Pabi Astondoa aurtengo munduko txapelduna da

Pabi Astondoa zeanuriztarra, eta bere taldeko Joakin Garmendia, Koldo Arzelus eta Anjel Maguregi, txapeldun geratu ziran munduko sega txapelketan. Sega txikiagaz 60 urtetik gorako taldekako sailean lortu eben garaipena.



Pabi Astondoa podiumeko kajarik altuenean.

Erredakzioa

Txapelketea Salbitzen (Alemania) izan zan. Andrazkoetan be egon zan Arratiako ordezkariak: txapeldunaren alabea Irati Astondoa, hain zuzen be. Andren taldea finalerako sailkatu bazan be, ez eban lortu podiumera igotea.

Munduko Sega Txapelketara hiru talde joan ziran Euskal Herititik. Talde bakotxean 4 segalari. 60 urtetik gorako taldeak garaipena lortu eban eta eliteko gizonak, gipuzkoarrak laurak, hirugarren egin eben sega handiagaz. Andrak, barriz, laugarren egin eben sega handiagaz eta bos-

garren sega txikiagaz.

"Finalurrekoa edo sailkatze-koa barikuan (maiatzak 18) izan genduan. Lehiaketak sega txiker eta sega handiagaz ziran, eta hiru taldeok bai sega txiker eta sega handian sailkatu ginan. Hamazortzi talde ziran eta lehenengo seirak sailkatzen ziran. Txukuntasuna eta arintasuna neurtzen dira" azaldu deutso begituri Irati Astondoa segalariak.

Munduko Txapelketea urte biro egiten da.

Bizkaiko neska segalari bakarra Zenurikoa

Irati Astondoagaz batera Iparralde-

ko Paola Charronek, Nafarroako Isabel Ansak eta Gipuzkoako Arrate Garinek osotu eben taldea. Txapelketetan dabilan Bizkaiko andrazko bakarra da Zeanurikoa, baina baikor ikusten dau segaren egorea "Gero eta hobeto dagoala esango neuke. Orain 10 urte ez zan neskarik ikusten eta aurtan andrazkoetan Gipuzkoako lehenengo txapelketea egin da" dino Astondok.

Zeanuriko segalariaren hurrengo neurtzea Euskal Herriko sega txapelketea izango da. Hilaren 17an eta 23an izango dira sailkatzeko saioak eta finala garagarriaren 22an.

RUGBY TABERNA

•Egin zaitetz bazkide!
•09:30etik zabalik
•Asteburretan pintxo bereziak

ARRATIKO ESKORRAK

arratiko.zekorrak@gmail.com
http://santxisme.blogspot.com/

arratiako instalazioak s.l.

Berokuntza - Iturgintza - Gasa

Aireztatze sistemak - Aire zurgintza zentralizatuak
Suteak kontrolatzeko zerbiztuak eta mantentze lanak

Igorriko Industriales, Pab. 07
Tel. Fax 94 673 62 76
619 736 616
48143 Igore Baka

Gure Ikastetxeak

Arratiako Herri ikastetxeak 2 urtetik 18ra. Euskalduna, kalitatezkoa, herrikoa

Arratia BHI
Tel.: 94 673 62 37 Faxa: 94 673 62 37 Igorre

Ikastola Arratia HI
Tel.: 94 673 90 65 Faxa: 94 673 90 65 Artea

Zubialde HI
Tel.: 94 648 06 82 Faxa: 94 648 14 84 Zeberio

I. Zubizarreta HI
Tel.: 94 673 60 22 Faxa: 94 673 60 22 Igorre

Areartzako Herri Eskola
Tel.: 94 673 90 93 Faxa: 94 673 90 93 Areatza

Zeanuri HI
Tel.: 94 673 93 33 Faxa: 94 673 93 33 Zeanuri

J.B. Eguskiza Meabe HI
Tel.: 94 631 32 28 Faxa: 631 32 28 Lemoa

Ugarana HI
Tel.: 94 631 55 32 Faxa: 94 631 92 11 Dima

Haur hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrazko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoak, Hezkuntza zikoak

IBILALDIA

**Ganoraz taldearen
ibilbidea Zeanuriko
ondarea ezagutzeko**

Ganoraz Euskera Taldeak hamargarrenez antolatuko dau "Arbasoen artetik gure bazterrak ezetu" izeneko ibilaldia.



Zeanuriko Elizondo.

Erredakzinoa

Aurtengoa Zeanurin izango da, bagilaren 23an. Urtero lez, gidari lanak Angel Larrea historialari eta idazleak egingo ditu.

Ibilbideon asmoa da inguruko herrietako aberastasunaren barri emotea; dagoan ondare historiko, etnografiko eta mitologikoa ezagutzeko, hain zuzen be. Oraingoa, Zeanuriko txokoak ikusteko antolatutun dan bigarren aldia izango da; izan be, 2004an herri berean egin zan proiektuaren 2. edizinoa.

Dana dala, eukiko dauz desbar-dintasanak ordukoaren aldean. Aurten, ibilbidea herriko plazatik hasiko da Otzerimendira joan eta

bertain dagozan San Justo ermita eta karobia ikusteko. Ostean, Al-tzuagako San Juan ermitara joango da taldea, azpian daukan X. mendeko nekropolia bisitatzera. Gero, Ipiñaburun dagozan baserri batzuk eta Ipiñako patronatoaren palazioa ikusiko dira. Eguerdian, plazara bueltauko da taldea antolakuntzak atondutako pintxo-jana egiteko.

Ibilbidea oso modu lasaian egiteko dago planteautu; izan be, tarteka kotxez, tarteka oinez egingo da. Hasierea Zeanuriko plazan izango da goizeko 9etan. Informazio gehiagorako telefonoa: 649 979 115.

LEHIAKETE

**Piropo irabazle
bi Igorreko
lehiaketan****Erredakzinoa**

Aurten bi izan dira piropo irabazleak, bardinketea egon da eta. "Inizituen artean zeu zara, maitia, nire ustrukue" eta "nire mamiak zure gorringoan busti gura dau, ñam, ñam!" piropoak pegatinetan agertu dira eta Igorreko jaietako txosnetan eskuragarri dagoz. Irabazleak AEKko A1 taldea eta Iker Yurebaso izan dira.

Parte hartze handia izan da, 47 piropo jaso dira, baina igaz baino kalidade eskasagoak izan dirala dinoe Igorreko Euskera Zerbitzuti. Lehiaketa hau, Euskera Zerbitzuak antolatu dau "jai giroan, ligatzeko euskerazko esamoldeak sustatzeko eta erabilteko, eta arlo honetan euskeraz moldatu ahal garala erakusteko. Izan be, esparru hau gaztelan-arena da ondino be..." dino Amaia Arauzo Igorreko Euskera teknikariak.



Piropoagaz pegatinea.

BEGITU

BEGITU 10 urte kantea sarean da**Erredakzinoa**

Mungiako Magic Box Music estudioetan grabau eben maiatzean BEGITUREN 10. urteurrenaren kantea Arratiako zazpi taldek. Irratian entzun daiteke eta sarean dago eskuragarri Youtub-en <http://www.youtube.com/watch?v=OEtjwDYE5U0&list> helbidetan.

Bidean Galduta, MG, Eskean, Jaik, Nik Khaos, Esti eta Olatz eta Tapakubos dira Bidean Galduta taldeak sortutako kanta hau grabau dabena. James Morgan eta Iraide Torrontegiren Magic Box Music estudioetan grabau be. "Taldea guztiak sano pozik dagoz estudioagaz eta

lortutako emoitzeagaz. Sano giro ona egon da talde guztien artean eta proiektu polita izan da" azaldu deutso BEGITURI Cristina Ruiz Zertukoak eta proiektu honen koordinatzaileak.

Irratian eta interneten

Proiektu hau zezeilan ipini zan mar-tan, kantea BEGITU 10 urte aprileko ekitaldian estrenau zan, eta ondoren, taldeak Mungiako estudioetan grabetan hasi ziran. Orain, kantea interneten dago Youtub-en edo BEGITUREN webguneko bideoak atalean eta irrati batzuk be ipinten dabe kantea euren saioetan. Kantearen bideklip bat egiteko asmoa be agertu dabe Zertukoak.



Musikariak estudioan James Morganegaz

E P A
Galdakao
www.epagaldakao.com
Matrikuletako epea,
bagila osoa.
Tlfn. 94 456 60 98
Helduen heziketa

E.P.A.
IGORRE: Elexalde 22. Eleizako lokaletan

**ATERA EUSKARA
EGUZKITARA!**

Arratiako AEK
udako ikastaro trinkoak
maila guztiak
EGA eta HABE tituluak
946 315 657

aek
www.aek.org

bbk

**HERRIKO
BENTA**
HERRIKO PLAZA
48142 ARTEA (Barkala)
Tel. 94 631 72 56

**Ametzola
Landetxea**
Ametzola 1-1
48499 Zeberio
629 429 870
www.ametzola.net

MIHILUZE

30ean azken kanporaketea

Erredakzinoa

Heldu da Mihiluzeren azken kanporaketea, bagilaren 30ean izango da, 18:00etan Kultur Etxeko Lasarte Aretoan. Irabazleak, urri-lehenengoaren 8ko finalaurrekoan lehiatuko dira martiaren 31ko eta maiatzaren 19ko irabazleen kontra.

Bagilaren 30ean beste bederatzik bikoteri tokauko jakie euskereagaz daukien abilezia erakustea: tribuaren berbak, esamesak, erogifikoak, imihintzioka eta potokumeak. Helburua euskereagaz, hizkuntzeagaz jolastea da, eta bide batez, jolasaren bidez, bertoko berbak promozionetea eta horreen erabilera bultzatzea.

Bagilaren 30eko parte-hartzaileetan egongo da sorpresarik, izan be, euskera planetik esan dabenez, inok itxaroten ez dauan bikotea egongo da oingoan. Momentuz besteak nortzuk izango diran badakigu: Ane Goienetxe eta Ekhi Ziarrusta, Maialen Agirregoikoa eta Madalina Buda eta Ivan Gomez eta Deiene Aldeiturriaga Arantzarte jantza taldekoak lehenengo saioan. Ane Errekagorri eta Asier Bustinza eta Edorta Zurinaga eta Josu Inunziaga Intxaurbizkar kultur taldekoak bigarren saioan eta Ander Bilbao eta Ane Salcedo Zaztapparretatik, Goizane Zuluaga eta Ane Olibares Gazte Asanbladatik eta Arkaitz Petralanda eta Ane Bilbao AZ rugby taldetik 3. saioan.

Eskolako final handiko irabazleak Maitane Uribarri eta Xabier Barrenexea izan ziran. Etxera eroan eben MP4 eta Mihiluze joko bana.

HIZTEGIA

Errumaniarrentzako euskara berbategia egin dau Rabellik

Erredakzinoa

Alvaro Rabelli Zeanuriko irakasleak alkarlanean eginiko *Errumaniarrentzako euskara* berbategi laburra argitara emon barri dau. Berbategi honen helburua gure artean bizi diran errumaniar hiztunak euskara ikasteko orduan behar moduko beste baliabide bat eskaintzea izan da. Holan, "*Errumaniarrentzako euskara* ez da berbaz berba eginiko berbategi arrunta, berehalako komunikazioa erretzen daben esaldi komunikatiboen bildumea baino" azaldu deutso BEGURI Alvaro Rabelli egileak.

Berbategiak hiru zati nagusi dakar, alde batetik, euskal hizkien ahoskerea eta azentuazinoaren gaineko azalpena, ostean berbategiaren atal nagusia dator, eta bestetik, euskal gramatika labur bat errumaniaraz azalduta. Lan honek guztira berrehun eta hiru-

rogeita lau orrialde daukaz. Zati nagusiari jagokonez, berau sei atal edo arlo komunikatibotan bananduten da: Era guztietako egoerak, Eguneroko bizitza, Astialdia, Bidaia, Banketxean eta Larrialdi egoerak, hain zuzen. Atal bakoitzean hiztunak eguneroko esaldi erabilgarriak topauko dauz, errumanierazko esaldiaren ondoan euskerazko baliokidea eta berari jagokon era ahoskatua be; hau da, euskera errumaniararen grafia eta fonetikara moldatua. Esan behar, bestalde, egitasmo hau Lasarte-Orian egoitza daukan Decebal, Euskadi-Rumania alkar-teko kidea dan Mioara Denisoven eskutik etorri dala. Horrek errumaniarazko aldea parau dau eta Alvaro Rabelli zeanuriztarrak euskereari jagokona. Berbategi hau Madrilgo Atenea hizkuntza zentroak argitaratu dau eta bertan daborduko salgai dago (www.editatenea.com).

Edozelan be, Alvaro Rabellik adierazo lez, *Errumaniarrentzako euskara* berbategia errumaniar hiztunak euskerea ikasi daien beren-beregi atonduta dagoan arren, kontrakoa egiteko be; hau da, euskaldunok errumaniarara hurreratu gaitez, balio dau. Datozan hilabeteotan prensaurrean aurkeztuko da berbategi hau, Zeanuriko egileak bidean daukazan *Errusiarrentzako euskara* eta *Ukrainiarrentzako euskara* berbategiak be aurkezteaz batera.



Hiztegia.

NARRAZINOAK

Lemoako webgunean irakurri daikez saritutako narrazinoak

Erredakzinoa

"Argi-seinaleak trena ailegatzeko bost minutu falta direla adierazi duen unean ailegatu da ondorio bitxi horretara. Orduantxe ikusi du argi bere pentsamenduak sasoian entzuten duen musika-

ren arabera sortu eta garatzen direla. Erritmo jakin bat jarraitzen dute, pasarte luze eta korapilatsuetatik irudi labur eta errepikakorretara; halako kutsu jakin bat".

Holan hasten de Urtzi Barreneixeren "Geltokian" ipuina Lemoako I. Narrazio Lehiaketaren 1. saria irabazi dauan lana. Narrazio osoa Lemoako webgunean irakurri daiteke.

Beste narrazio sarituak be irakurri daitez bertan, 2. saria jaso dauan Joana Espartaren "Egun ilunak gogoan" eta Jokin Uriarteren "New Delhi", 3. saria eta Lemoako 1. saria jaso dauana, hain zuzen be.

AISIA

Zaztapparren udarako plana prest

Iruñe Garzia

Urteroko udako planari jarraipena emonaz, aurten be Zaztapparak Asti Taldea "endredetan" ibiliko da Arratiako herrietatik eta Euskal Herriko beste leku batzuetatik be bai.

Aurtengo udaleku itxietako helmuga Maeztu (Araba) izango da. Udalekuak abuztuaren 3tik 14ra izango dira.

Garagarrileko planari begiruta, bigarren hamabostaldian udaleku irekietan egongo dira Zaztapparak Igorren, 16tik 27ra hain zuzen be. Bertan izena emoteko adin tartea 4tik 16rakoa da eta epea bariku honetan, hilak 15

amaituko da.

Ludotekak be jarraipena izango dau udan. Adin tarte bakoitxak bere astea izango dau; bagilaren 25etik 29ra, 4-6 urte bitartekoak egongo dira, garagarrileko lehen-go astean 8-12 urte bitartekoak eta azken hamostaldian 3 urteko umeak egongo dira.

Horrezaz gainera, bagilaren 25etik garagarrilaren 13arte parte hartu gura daben ume guztiak Igorreko Kultur Etxeko parkera hurbildu daitez, bertan jolasak, tailerrak eta beste hainbat gauza egongo diralako goizeko 11:00etatik 13:00etara. Antolatzaileak jentea animau gura dabe parte hartu daian.

Arratia, Ubide eta Zeberioko euskerea eta kulturearen alde

Hamabostero Begitu zure etxean

begitu in urte

10 urte, hamar herri hamaika ekintza.

Egin zaitez zeu be Begitu-lagun

Etxean jasoko dozuz Zertu Kultur Elkartek ateratako produktuak. Hamabostean behin, sariketa-zozketan parte hartuko dozu.

Izen Abizenak

Helbidea

Telefonoa

E-posta

Kontu korronteko 20 digitoak

Urteko kuota aukeratu:

■ 35€

■ 55€

■ 75€



Moztu eta bidali helbide honetara:
Zertu Kultur Elkartea, Herriko plaza 24. 48142 Artea

AGENDEA

BAGILAK 15 IGORRE

San Antonio jaiak hilaren 17ra arte. Ikusi egitaraua BEGITU 165. zerbakian, 5. orrialdean.

ZEBERIO

Ermitabarrin, San Antonio jaiak hilaren 17ra arte. Ikusi egitaraua BEGITU 165. zerbakian, 5. orrialdean.

BAGILAK 16 DIMA

06:00etan Errogatibea Urkiolara, plazatik urtenda. 08:00etan Zeanurin.

BAGILAK 17 ARTEA

09:00etan, Arteako II. Zikloturista martxea. Plazan.

BEDIA

10:00etatik 14:30era, XII. Eskulangintza eta elikagaien azokea.

IGORRE

13:00etan, Areatzako Bandaren kontzertua Kultur Etxean.

BAGILAK 18 BEDIA

18:00etan Txiki Txoko, 18:30ean, Udalekuak eta 19:00etan, Uda Gaztea batzarrak liburutegian.

IGORRE

11:00etan, AMEK antolatuta eskolaumeentzako kontzertu didaktikoa Kultur Etxean.

BAGILAK 20

IGORRE

17:00etan, akrobazia ikastaroa Kultur Etxean.

LEMOA

20:00etan, stretching saiorako (luzamentuak) izena emoteko eguna. Ganzabalen lokalean.

BAGILAK 21 BEDIA

17:00etan tailerren erakusketea, 17:30ean

tailer barrietako proposamenak, 18:00etan, merienda liburutegian.

BAGILAK 22 BEDIA

San Juan jaiak. Ikusi egitaraua 7. orrialdean.

LEMOA

19:00etan, Ganzabalek antolatuta 5. stretching saioa (luzamentuak).

UBIDE

San Juan jaiak. Ikusi egitaraua 5. orrialdean.

ZEBERIO

Austarri Bazkide Eguna herriko plazan. Arrastian Batzar Orokorra eta ondoren, kopautxoa eta musikea zuzenean jantzan egiteko.

BAGILAK 23 AREATZA

20:00etan San Juan sua eta sardina jana Zubizarran.

LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, Arroka eskaladea San Fauston (Nafarroa). Astegoienean.

IGORRE

San Juan auzuneko jaiak. Ikusi egitaraua 7. orrialdean.

ZEANURI

09:00etan, plazan. Ganorazek antolatuta, ibilaldi gidatua Angel Larrearen eskutik. Plazan.

San Juanak Alzuagan. Ikusi egitaraua 7. orrialdean.

BAGILAK 24

ARTEA

08:00etan, Auzorik Auzo ibilaldia. Plazatik urtenda.

DIMA

Sanjuanak Oban. Mezea eta barauskarria ermitan.

BAGILAK 28 AREATZA

19:00etan, udalekuetarako batzarra ludotekan.

DIMA

San Pedro jaiak. Ikusi egitaraua 5. orrialdean.

BAGILAK 29 ARANTZAZU

San Pedro jaiak. Ikusi egitaraua 5. orrialdean.

IGORRE

19:30ean, hileko azken barikua, preso eta errepresaliatuen aldeko kontzertuzinoa.

ZEANURI

Undurragako jaiak. Ikusi egitaraua 7. orrialdean.

ZEBERIO

23:00etan, Ermitabarriko tabernan Alper Gate musika taldea.

BAGILAK 30 IGORRE

18:00etan Mihiluze. Kanporaketea Kultur Etxean.

ZEBERIO

11:00etan, Hasiberriro alkarteak antolatuta, Truke Azokea Zeberioko plazan 19:00ak arte.

GARAGARRILAK 1 LEMOA

Hilaren 7ra arte, Aran bailara-Baqueira. Ganzabalek.



Zea Mays Dimako jaietan hilaren 30ean

Zea Mays Bilboko taldea Diman izango da bagilaren 30ean. San Pedro jaietako egitarauaren barruan, zapatu gauean joko dau Split 77 taldearen ostean. 1997an sortu zan Zea Mays eta 1998an *Zea Mays* izeneko bere lehenengo diskoa atera eban. Honen ostean, *Elektrizitatea* (2000), *Harrobian* (2002), *Sortuz*, *Gabitarearen aurka* (2005), *Morphina* (2007) eta *Era* (2011) diskoak emon dauz argitara.

Taldearen pop-rocka eta Aiora Renterriaren abotsak zale asko ditu Arratian. Dimako jaietan daukie hizordua.

IRAGARKI LABURRAK

SALDU SALGAI

Altzarien eskeintza berezia, prezio sano bajuak likidazioagaitik. Zatoz ikustera Elexalde 10 behera (Igorre).

DANERIK ETXEA ALOKATU GURA DOGU

Alokatzen dan baserri edo terenoa daukan etxe baten bila gabizen bikotea gara. Telefonoa (Zuriñe: 656 739 952).

TXAKURRA GALDU DA

Txakurra baseritik eskapadau da katea apurtuta eta falta handia asmetan dogu. Topau ezker, ipini kontaktuan BEGITUgaz.

LOKALA ALOKATZEN DOT

Lonja edo lokal bat alokatzen dot Diman. Deitu telefono honetara 616 813 747.

GARBIKETAK

Etxeak, lokalak, portaleak, bulegoak... garbitan dodaz. Etxeko beharrak egin eta adinekoak be zaintzean dodaz. Telefonoa 666 238 081 (Cristina).

ETXEKO BEHARRAK ETA ZAINTZAK

Etxeko beharrak egin, eta umeak eta edadeko jentea jagoten dot. Kobxeduna. Mari Karmen 647 067 235.

UMEAK JAGOTEN DODAZ

Goizeko ordutegian umeak jagoteko prest nago. Telefonoa 600 759 434 (Naiara).

LOKALA GURA DOGU

Igorren alokairuan dagoan lokala gura dogun gazte taldea gara. Ahal dala erdigunean. Deitu 662 964 716 telefonora.

LEKU BILA

Txakurak eukiteko leku txiki baten bila nabil (Iker 680 518 473).

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin edo behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@topagunea.com-era. Mezuak doan dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1

Aiko taldeak emondako Oinak kantuz CD bana.


Mikel Iruarrizaga (Igorre)
Naiara Iza (Dima)



2

Zeberioko Ametzola Landetxeak emondako asteburu pasa.

Edume Landajo (Zeanuri)




Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,

zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 10 urte eta ehundaka lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU




EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Egokia ez dana. 2.- Sententzia. Nitrogenoa. 3.- Uranioa. Sortu. 4.- Kuartua. Birritan, asmo. 5.- Etxegintza. 6.- Erradona. Enborrak neurtzeko luzera neurria. 7.- Segidu, heldu. Letra bat. 8.- Oxigenoa. Lehenengo gizona. 9.- Lora mota bat.


GOITIK BEHERA

1.- Bokala. Herdoil. Oka, betekada. 2.- Bizkaieraz, zer. Kontuz. Bokala. 3.- Ez beroa ez hotza. Dharmaren irakatsien gabenetako bat. 4.- Mendekide. 5.- Gorputz atal bat. Ubide. 6.- Letra bat. Gauzatu. Persona izena. 7.- Indioaren sinboloa. Pluralez, txarra ez dana. Bokala.



Topau Afrikako zazpi uriren izenak.

A	T	R	O	L	A	S	E	J	U
Z	I	R	O	U	D	I	R	R	A
N	J	O	I	S	I	L	E	A	B
U	A	D	E	P	A	U	G	B	O
G	U	I	T	O	O	S	U	A	H
O	N	D	R	A	I	L	K	T	A
A	D	U	A	O	M	O	I	Z	O
D	E	R	B	I	B	A	S	O	X
U	T	A	N	A	I	I	O	R	U
G	A	R	A	M	N	O	H	I	Z
O	S	O	L	U	A	N	D	A	U
Z	U	N	T	A	L	E	I	J	O
W	O	K	A	R	I	N	Z	O	F
I	A	L	A	P	M	A	K	E	R
S	O	I	K	U	A	R	I	N	O



Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tlfnoa 649 86 95 36

Igorren
ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

publicidadea
94 631 73 14 eta 649 979 115

www.begitu.org

Gugaz harremanetan ipinteko
**94 631 73 14 eta
649 979 112**

begitu@topagunea.com

L

ARRATIA AUTOESKOLA
kamala eskolaraz zein erdioraz
Agne Lehendakaria 11 48140 Igone (Bizkaia)
Telefonoa 94 631 56 31 Faxa 94 673 70 83
E-posta: urabiz@euskainet.net

NAIARA Hertz Klinika
Lehendakari Agirre, 19
48140 Igone
94 631 52 26

Los Chopos
neurritza egindako armairuak
Anda, Los Chopos, 35 (Nagel) Tel.: 94 430 40 94
**Esposizinoa eta
fabrikea Lemoan**
Pozueta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44
www.armariosloschopos.com

begitu
amaria ubide zerbeto

* **KIRRU** * **ILEAPANDEGIA**
SOLARIUM
Roberto eta Rosana
Sabino Arana, 38 bajo - 48140 IGORRE (Bizkaia)
94 631 92 00

Orrie
FOTOKOPIAK - PAPERBENDA
E. Agirre, 7.
48120 Igurre (Bizkaia) Tlfnoa: 94 622 64 29

INCOESA
Tel. 94 631 32 75
Faxa. 94 631 37 66
Bidekoetxe 18 48.390 Bedia

**Bar Restaurante
Montero**
Eguneko menua
euskal sukaldaritza,
sukaldaritza bolibiarra
eta brasildarra
Zelaia 19 - Arantzazu - 619 903.653

ESTI OLIBARES ETA OLATZ GOIKOETXEA

"Bizkaiko txapelaren ostean, gure helburua Euskal Herrikoa ekartea da"

Esti eta Olatz zeanuriztarak berbalditxo bat eukiteko ereia izan dau BEGITUK. Batak goiko abotsa eta gitarrea dituz erreminta lez, besteak beheko abotsa eta flautea. Arratiako bikote honek urteak daroaz kantetan. Kantua eurentzat deskantsetako eta lasaituteko bide bat dala aitortu deuskue, libertatea sentiduteko modu bat. Maketea atera eben aspaldi eta hainbat ekitalditan abestu dabe. BEGITUREN 10. urteurreneko abestian parte hartu dabe, beste guztien artean euren estilo desbardina markatuz. Kantu Txapelketara be joaten dira eta ez joan bakarrik, irabazi be bai. Txapelez beteta daukie etxea neska honeek baina astegoi honetan (bagilak 16) Euskal Herrikoa be ekarteko gogoagaz dabiz.

Irati Urien

Maketea egiteko idea nondik urten zan?

Ander pelikulea Zeanurin grabau zan. Eurakaz kontaktuan parau ginan eta proposatu euskuen kanta bat sortzeako, bai letrea eta bai lana. Orduan, kanta horretatik aparte lau be geureak geunkazanez, maketea grabetea pentsau genduan.

Zertan zabizie momentu honetan?

Sasoi hau ezkontzen garaia da eta ezkontzarik ezkontza abestuten dogu eleizetan. Beste alde batetik, kantu txapelketari jagokenez, bagilaren 3an Bizkaiko Euskal Kantu Txapelketea irabazi genduan.

Txapel faltarik ez dozue igarriko etxean... Zenbatgarrena honezkerok?

Bizkaikoa hirugarrenez irabazi dogu. Euskal Herriko Kantu Txapelketea lau urterik behin izaten da eta Bizkaikoa bi urterik behin.

Orain Euskal Herrikoa joango gara.

Ze kantugaz irabazi dozue Bizkaikoa?

"Gazter behatuz". Iparraldeko kantu zahar bat da. Galtzean dabilen abesti bat dala-eta trofeo bat be irabazi dogu.

Ate joka daukazue Euskal Herrikoa orduan... prest?

Bizkaiko finalean parte hartu dabenetatik lau onenak sailkatuten dira Euskal Herrikoa joateko. Hil honen 16ean izango da txapelketea, Donostian. Bertara be "Gazter behatuz" kantugaz joango gara, abesti bardinagaz joan behar izaten da eta. Momentu honetan gure helburua Euskal Herriko txapela ekartea da.

Esti zuk gitarrea jotzen dozu eta Olatz zuk zeharkako txirulea. Pentsau dozue inoz**Arratiako jentea Euskal****Kantu Txapelketan****kantetera apuntau****daiten animetan dogu.****Aukerea hortxe dago****eta bertatik kontzertu****asko sortuten dira****beste instrumenturen bat sartutea?**

Bai askotan. Inoz jo dogu kajeagaz edo pianoagaz be bai. Planteauta euki dogu inoz baina azken baten bakotxa bere kontuakaz okupata egoten da eta ez dogu denporarik eukiten.

Sekula be entzun ez zaituen baten bateri zelan definiduko zeinkioe zuen estiloa?

Ez dakigu ze izen ipini. Estilo lasai bat da, erlajetako askotan. Entzutekoa da eta ez jantzan egitekoa.

Ezkontza baten ze kantu abestuten dozuez? Eta kontzertu baten?

Ezkontzetan bikotearen gustuen arabera, eurak esaten deuskuezan abestiak kantetan doguz. Kontzertuetan ostera, gure abestietatik aparte, euskal abeslarien bersinoak egiten doguz eta inoz gaztelaraz edo ingelesezko baten bat be sartu dogu. Gehien bat

euskeraz normalean.

BEGITUREN 10. urteurrena ospatuteko abestian parte hartu dozue guztiz estilo desbardinakaz nahastuz. Zelango esperientzia izan da?

Egia esan sano esperientzia ona izan da estilo desbardin guztiak kanta baten sartzea. Abestian bakotzak bere estiloa mantenidu eta markau dau. Polita izan da.

Emoitzeagaz pozik?

Bai, sano. Gainera, nahiko exijentea izan dan disketxe baten grabau genduan, asko dakien persona bategaz eta horrek be asko egiten dau. Ondino ez da asko zabaldu kantea, baina hemendik aurrera irratietan, sare sozialetan... zabalduko ei da.

Aurrera begira proiektu edo ilusinoren bat bai?

Disko bat grabetea gustauko litxakigu. Eta posible ikusten dogu baina ez dakigu noz.

San Antonio JAIK 2012

www.arratia-merkatariaK.com

<p style="background-color: black; color: yellow; padding: 5px; font-weight: bold;">13an - TXU-TXU TRENA</p> <p style="background-color: black; color: yellow; padding: 5px; font-weight: bold;">105 APARKALEKUAN/GARBE</p> <p style="font-weight: bold;">11:00etatik - 14:00etara 16:00etatik - 19:00etara</p>	<p style="background-color: black; color: yellow; padding: 5px; font-weight: bold;">15ean - AMANTALAK OPARITUKO DIRA</p> <div style="border: 1px solid black; padding: 5px; margin: 10px auto; width: 80%;"> <p style="margin: 0;">Txapelketa gastronomikoetako partehartzaileentzako (amaitu arte)</p> </div> <p style="font-size: 2em; font-weight: bold; color: black;">Jai zoriontsuak opa deutsueguz !!!</p>	<p style="background-color: black; color: yellow; padding: 5px; font-weight: bold;">17an - JAI HANDIA KULTUR ETXEAN</p> <div style="border: 1px solid black; padding: 5px; margin: 10px auto; width: 80%;"> <p style="margin: 0; font-weight: bold;">JOKALDI + TXOKOLATEA</p> </div> <div style="border: 1px solid black; padding: 5px; margin: 10px auto; width: 80%;"> <p style="margin: 0;">Athletic-eko jokalariek sinatutako kamiseta emongo da</p> </div> <p style="font-weight: bold; font-size: 1.5em;">IGORREN EROSI</p>
---	---	---